

TANBORRADA eta KARROZAK: Euskararen aldeko danbor-hotsa

1973 urtearen bueltan, Juventud Elgoibarresa elizako gazte-taldearen baitan zegoen euskara-taldea ibili zen Elgoibarren danborrada berreskuratzeko ahaleginean. Baina bizpahiru urtera, taldea desagertu egin zen, eta 76an, Elgoibarko Izarrak hartu zuen danborrada antolatzeako ardura. Elgoibarko Izarrak hartu zuen ardura, baina Elkartearen nahia herriko elkarteekin batera antolatzea zen.

Lehen urtean, danborrada klasikoa atera zen: Erregina poxpolin jantzita, damak baserritar jantzita eta kantinerak. Baina hori lehen urtean bakarrik izan zen. Bigarren urtetik aurrera, danborradarekin batera irteten ziren karrozetako giroa aldatzen ahalegindu ziren Elgoibarko Izarrakoak. Euskal Herriko giro diferenteak erakusten saiatzen ziren (base-
rria, itsasoa, ...).

Ondoren, hirugarren etapa ezagutu zuen Elkartearen danborradak. Etapa erreibindikatzaila deitu diezaiokeguna. Etapa horretan herrian zeuden hainbat kezka eta arazo azaleratu zituzten: euskararen zapalkuntza komunikabideetan, herrian antolatzen ziren hitzaldietarako jendeak zuen pasotismoa, King-Kong etxeagatik egindako protesta, etab.


Baina, denborarekin, hasierako indarrak makaltzen joan ziren. Karrozak egiteak lan handia ematen zuen, eta jendea nekatzen hasi zen. Hau ikusita, Elgoibarko Izarrak laguntza eskatu zion Konporta elkarteari. Eta konporta danborrada antolatzeaz arduratzen zen, eta Elgoibarko Izarrak, berriz, karrozaren erantzukizuna hartzen zuen bere gain. Eta hala jardun zuten bizpahiru urtez.

10 urteko jardunaren ostean, 1986an isildu ziren Elgoibarko Izarraren danbor-hotsak.

*Danborradetako karrozak,
hainbat arazo eta kezka
azaleratzeko aprobeztatzen
ziren: Euskararen
zapalkuntza
komunikabideetan; herrian
antolatzen ziren
hitzaldietarako jendeak
zuen pasotismoa; King-Kong
etxeagatik egindako
protesta, ...*



Baserria eta gure herria uztarri berean daudela erakutsi nahi zuten 1975eko karrozarekin.



Euskal Unibertsitatearen aldeko karroza, 1976ko eakainean.



Euskaraz antolatzen ziren kultur jarduerak izaten zuten erantzun eskasaren salaketa.